


Asier Lasa Galparsoro

A maila • 2 aipamena

18 urteko ataundar gazte bat naiz, txikitatik eta Ataungo herri eskolan bertsotan hasia. Azken aldian ordea, denbora faltagatik bertso eskola utzia nuen eta bertsolaritzan ikusi eta entzunez soilik jarraitzen nuen. Bestalde, saskibaloian jokatzen dut eta txirrindularitzaren jarraitzaile sutsua naiz. Orain San Benito Ikastolan batxilergoa amaiturik, etorkizunera begira nago.



Doinua: Gaur egungo gizartea Urbide

GAUR EGUNGO GIZARTEA

1.
Ikastolako 5 egun hauek
luzeak izan ohidira
hirurak jota egiten degu
etxera geuk erretira
ta iristean bazkaria prest
amonak gustuz eginda
amaitutakon hartzen naiz lasai
telebistari begira.

3.
Ume bat zulo batean bera
erorizela gertatu.
100 metrotatik bera erori
bizirik zela pentsatu
gorabehera asko ondoren
iadanik hilda aurkitu
gustora asko jakingo nuke
zenbat diru den gastatu.

2.
Gaurkoan baina diferentea
izan da neure jarrera
teleberrian titular hauxe
ikusteakin batera,
notizia bat badabilela
alde batetik bestera
Andaluzia alde horretan
pasatu den gertaera .

4.
Ta guzti onen atzean dugu
erabat hau izkutuan
Meditenaneo alde hcinetan
benetan zer gertatuan,
inmigranteak hil omen dira
itsasoaren baruan
ze miseria pasatzen duten
inork ez dauka goguan.

5.

Konparazio txiki honekin
eman nere iritzia
esanez altu mundu honetan
non ote da justizia
dirua tarten dagoenari
soilik eman ganantzia
hanígarria irüditzen zait
daukagun ignorantza.

6.

Batzuk hain ondo, bestek hain gaizki
alde hori da tristea
hainbeste kexa ditugu baina
ederra dugu suertea
diferenEia hoi berdintzea
likake borondatea
soberan dunak falta dunari
behar duna ematea.